

Martxan da Andoaingo Udalak abian jarritako muralismo programa

Programa honen bitartez aukeratu diren 8 partaideak reaktibatu eta haien laneratzea erraztea du helburu



Datozen sei hilabeteetan muralismoaren inguruko formakuntza jaso eta arlo horretan lan egiteko aukera izango dute partaideek.

Udalak alor honetako gaikuntzaz gain aktibazio-espazio gisa ulertzen du programa hau eta horrela azpimarratu du Andoni Alvarez alkateak haiekin egindako aurkezpenean ere: “Espero dugu hurrengo sei hilabeteetako jarduna oso aberasgarria izatea zuentzat, batez ere etorkizunera begira ireki diezazuekeen ateei dagokionez”.

Hasierako formakuntza jaso ostean Andoaingo txoko ezaberdinak apainduko dituzte formakuntzan zehar ikasitako guztia aplikatuz herriko paretetan zehar.